



AUZOLANA

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

2020/21 ikasturterako auzolan txandak prestatzen hasi gara. Hori dela eta, ikasturte honetan Auzolanean aritzeko asmoa duten familiek urriaren 19a baino lehen eman beharko dute izena.

Izan ere, hilak 23 eta 24an burutuko ditugu lehenengo saioak.



Ikasturtean zehar lan txanda bidez 40 ordu lan egiten dituen familiari Inbertsio eta obratarako kuota osoari dagozkion 295,56 € itzuliko zaizkio.

30 ordu lan egiten duen familiari Inbertsio eta obratarako kuotatik %70ari dagozkion 206,90 € itzuliko zaizkio.

20 ordu lan egiten duen familiari Inbertsio eta obratarako kuotatik %40ari dagozkion 118,22 € itzuliko zaizkio.

Ikasturteko auzolana amaitzen denean dagozkion proportzioa itzuliko zaio familia bakoitzari.

TXANDEN ANTOLAKETA

Familia bakoitzak urtero 40 orduko lan-txandak egin beharko ditu, proposatzen diren datatan, posible delarik asteburu berbereko ostiral eta larunbatean parte hartzea.

Txandak 40 orduko erreferentzia bezala harturik, Ikastolak dituen beharren eta izena ematen duen bazkide kopuruaren arabera antolatuko dira. Hau da, izan daiteke ordu nahikorik ez egotea izena ematen duten denek 40 ordu bete dezaten edo lan nahikorik ez egotea denentzako. Horrela izanik, era proportzionalean arituko ginateke.

Familia bakoitzeko pertsona bakarra arituko da eta bazkideza duen pertsona izatea aholkatzen dugu.

AUZOLAN TXANDAREN XEDEA

Ikastolaren izaeran, hezkuntza guraso kooperatiba bezala mantendu nahian, familia guztiek Ikastola propio bizi behar dute.

Ikastolako mantenu lanek xede hau gauzatzeko aukera ematen dute auzolanaren bidez eta gainera Ikastolako kuotek suposatzen duten zama arintzeko aukera ere badira.

Hortaz, Auzolanak Ikastolako mantenuarekin harremana duten lanetan laguntzeko aukera ematen du antolatutako lan txanda ezberdinen bidez, eta horrela inbertsio kuota berreskura daiteke.

Mantenu auzolan txandak margotze lanak, lorategien zaintza, jolas tokiak..., mantentzeko erabiliko dira, partaideen trebezia eta nahiak kontuan izango direlarik. Ikastola arduratuko da txanda horiek aurrera eramateko materialaz.

INBERTSIO KUOTA BERRESKURATZEKO AUKERA

Irailetik abuztura bitartean, bazkide kooperatibista den familia bakoitzak inbertsio kuota bat ordaintzen du seme-alaba gazteenaren errezihoan; 2020 urtean:

| | HILEKO ZENB. | HILAB KOP. | GUZTIRA |
|--------------------------------|--------------|------------|---------|
| INBERTSIO ETA OBRATARAKO KUOTA | 24,63€ | 12 | 295,56€ |

izena eman